# BERRIGARA

36. zenbakia · JARDUN Elkartea Bergara · 1994, otsailak 4



*Berriketan*
**Txema Muñoz**

# Bergaran ere bada sagardorik

EGUZKITZA
ERRETEGIA
• Txuletak, kokotea, itxas sapua...
• Janaria etxetik ere eraman dezakezu
• Sagardoa nahi beste
• Jaiegunetan enkarguak hartzen ditugu

MENU BEREZIA
• Makailau tortila
• Saiheskia
• Gazta eta intxaurrak
• Sagardoa nahi beste

2.000 pzta

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

**CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak**

- *Azterketa ginekologiko osoak*
- *Minbiziaren aurretiko diagnostikoa*
- *Haurdunaldiaren kontrola*
- *Txekeoak*
- *Bularreko gaitzen unitatea*
- *Mamografiak*
- *Antzutasuna*
- *Antisorkuntza*
- *Menopausiaren tratamentua*
- *Dietak*
- *Sudurra, eztarria, belarria*
- *Analisi klinikoak*

**GUZTI HAU ARRASATEN BERTAN, URRUTIRAGO JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



**TANGOA, ROCK & ROLLA, MANBOA...**

# dantza ikastaroa

SAKONTZE MAILA

**noiz:**

Otsailaren 19tik apirilaren 23ra arte.

**ordua:**

Larunbatetan 16.30etatik 19.00etara.

**izen ematea:**

Otsailaren 16a baino lehen JARDUNen (76 08 19)

**Prezioa:**

- Bazkide direnentzat: 4.500 pzta.
- Ez direnentzat: 5.000 pzta.

**ANTOLATZAILEA**

Jardun

**LAGUNTZAILEAK**

BERRIGARA

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara.
Tfnoa eta faxa: 76 03 97
**Argitaratzailea:**
Jardun Elkartea
Masterreka, 13. 20.570 Bergara.
☎ 76 08 19
**Babeslea:**
Bergarako Udala.
**Zuzendaria:**
Gorka Elorza.
**Erredakzioa:**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.
**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Gorka Elorza.
☎ 76 03 97
**Kolaboratzaileak:**
Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, Juan Martin Elexpuru, Josu Oregi, Maripi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Miren Goenaga.
**Argazki laborategia:**
Pol-Pol Argazki Taldea.
**Komikia eta marrazkiak:**
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega, Jon Alvarez, Jose Martin Ezenarro eta Julian Ezenarro.
**Banaketa:**
Txantxangorri Taldea.
**Tirada:** 3.500 ale.
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).
**Copyright:** BERRIGARA
**Lege gordailua:** SS 50/ 91
**ISSN:** 1130-6599
**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

## ZERBERRIDA?

# MEHO KODRO

## *Realeko jokalari bosniarra*



**- Zer nolako egoera bizi da gaur egun Bosnian?**

- Notizia gutxi dudan arren badakit egoerak txarrera jo duela. Atzo bertan (astelehenean) deitu zidan lagun batek, inoiz baino okerrago daudela esanez. Guztiok dakigu zer gertatzen ari den. Laguntzak? Heltzen ari dira, nahiz eta batzutan arazo batzuk izan.

**- Pozik jendearen kolaborazioarekin?**

- Bai, noski. Euskal Herriak asko lagundu gaitu eta benetan laguntza hori beharrezkoa zaigu. Bihotz bihotzez guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

**- Soluziorik al dago Bosniako konflikta konpontzeko?**

- Hitzegin, ahal bada hitzegin. Eritzi ezberdinak hurbildu eta horrela pakea lortuko balitz askoz hobeto. Bestela, pakearen alde borrokatu beharra besterik ez dago.

***"Bosniako konfliktoa konpontzeko hitzegin eta pakearen alde borrokatu behar da"***

## ITURRI ONETIK

## Andoni Larrañaga EAJko zinegotziak kargua utziko du

Andoni Larrañaga EAJko zinegotziaren kargu uztea onartzekoa zen gaur goizeko Plenoan. Larrañaga Kultur eta Kirol zinegotziak "lan arrazoiengatik" postua uztea erabaki du. Oraindik ofiziala egin ez den arren, badirudi Jabier Zabaleta "Txantxi"k (bere ondorengoa EAJko zerrendan udal hauteskundeetan) ordezkatuko diola. Victoriano Gallastegiren hitzetan, "oraindik ezin daiteke esan Zabaletak ze lan beteko duen". Legealdi honetan Jose Luis Irazabal, Anaje Narbaiza eta Aitor Aginagalde HBko zinegotziek ere beren kargua utzi dute.

## ESAN DUTE

"Mendira joateko gero eta afizio gehiago dago. Pol-Polen, gaur egun, mendi eta ski sailak dira arrakasta gehien dituztenak".

**MAITE IRIZAR**
Pol-Poleko idazkaria
EUSKADI IRRATIA

●

"Bigarren mailako banakako txapelketara zergatik apuntatu naizen?... Probatzeko gogoa neukalako, inoiz ez dut banaka jokatu eta. Lagunek zergatik apuntatu naizen galdetzen didate, ez dudala ezer irabazten, baina ni ez nator bat horrekin. Gainera, izena eman eta gero zerbait espero duzu, esperantzarik edukiko ez banu ez nintzateke kantxara irtengo "

**IOKIN ETXANIZ**
Pelotaria
EL DIARIO VASCO

●

"Merkatal lege berriak ordutegia arautu du bakarrik eta dendarien premiak askoz ere zabalagoak dira, ezin daiteke horretara bakarrik mugatu."

**RAFAEL HERRAN, SUSANA IZA ETA PILAR AZKARATE**
BEDELKAR,
Bergarako Dendarien Elkartekoak
ARIZ-ONDO

●




**LAS LOCAS AVENTURAS DE ROBIN HOOD**
Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.



**ONCE DIAS, ONCE NOCHES**
Larunbata: 19.30, 22.30.



**LOS AMIGOS DE PETER**
Osteguna: 19.30.

# Zinea

▼▼ **Mel Brooks**ek (*El jovencito Frankestein*) oraingoan **Robin Hood**en mitoa hankaz gora jarri du. Sherwoodeko eroiaren alderdi barregarria ikusteko aukera. Zentzu gabeko umorearen bidetik, eroia inoiz baino eroago azalduko zaigu. **Cary Elwes** protagonista.

▼▼ **Joe D´Amatok** zuzendua, garai baten bi erronbo jasoko zituen filma. Filme erotikoa eta, honelakoetan bezala, argumentoa nonbait galduta. Filmearen publizitateak dioenez, lehen zatiak bezala honek ere erabat seduzituko zaituzte...

▼▼ **Kenneth Branagh** britaniarrak (*Enrique V, Morir todavía*) egindako azken filma. Amodioa, lagunak, IHESa eta beste hainbat gai ikutzen duen filma. **Emma Thompson** (*Regreso a Howard´s End*) **Branagh**en emaztea aktoreen artean.

# Deiak

▼ **Txema Muñoz** argazkilariaren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **San Blas Jaiak.**

• Larunbatean, IV. Mendi Bizikleta Ibilaldia 16.00etan.

• Igandean, goizeko 11etan Meza Nagusia. Ondoren, auzoko elkartean salda banatuko da. Jarraian dantzari bikoteen dantza saioa, harrijasotzaileen ekitaldia eta txerri harrapaketa eta kukañak. "Kontrabandista karrera"k jaiei amaiera emango die.

▼ **Altuna Akizu**ren erakusketa Donostiako Olaetxea Galerian.

▼ **Piztiak** taldearen kontzertua Pizinetako tabernan ostiralean gaueko 11etan.

▼ **Beethoven** filmea igandean 11.30etan Novedadesen.

# Ogia

▼ **Igandea 6:** Konde.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 5:** Camacho.
▼ **Igandea 6:** Camacho.
▼ **Astelehena 7:** Puy.
▼ **Asteartea 8:** Guallar.
▼ **Asteazkena 9:** Estella.
▼ **Osteguna 10:** Mozos.
▼ **Ostirala 11:** Camacho.

**PELI NARBAIZA IBARZABAL**
ASEGURU OROKORRAK
*Etxebizitzatarakoak, istriputarakoak, jubilazio planak, gaixoaldietarakoak...*
Mutua General de Seguros
Matxiategi, 3 5.B
BERGARA
☎ 76 47 57

**TXURRUKA AUTOAK**
Agentzia
**Taxi eta mikrobus zerbitzua.**
**Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.**
**Era guztietako erreparazioak.**
**Garbiketak, etab...**
Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.
☎ 76 12 36 - 76 09 30
PEUGEOT-TALBOT

# Txema Muñoz

BERE LANAK IKUSGAI NAHIKARI TABERNAN

## *Argazkilaritza publizitarioa lantzera Bartzelonara*

**Txema Muñozen argazki erakusketa Nahikari tabernan ikusgai izango da Karnabalak arte. Txema 1987an, 20 urterekin hasi zen argazkilaritzan eta aste honetan bertan Bartzelona aldera jo du publizitate munduan lan egiteko asmoz.**

**- Zer aurkitu dezakegu erakusketa honetan, Txema?**

- Profesional estilora eginiko argazkiak dira hauek eta argazki publizitarioa isladatzen saiatu naiz. Honako hauek bezeroak aurkitu edota lana topatzeko egiten diren argazki horietako batzu lirateke, egiten duzun lanari buruzko ideia bat izan dezaten.

**- Zuribeltz eta koloretan ateratakoak dira. Zer nahiago?**


Txemaren publizitate argazkiak Karnabalak arte ikusgai Nahikarin.

- Autore lana egiteko zuribeltza gehiago gustatzen zait. Publizitaterako, berriz, kolorea aproposagoa dela uste dut. Hala ere, zuribeltza berriz ere berreskuratzen ari da publizitatean, zuribeltzak gora egin du eta modan dagoela esango nuke, gero eta gehiago. Enkantu gehiago dauka. Nik biak tartekatzen ditut.

**- Bartzelonan, zer egiteko asmoa duzu?**

- Publizitate munduan lan egitea. Gustatuko litzaidake lehenbizi, pare bat urtetan, beste hainbat argazkilarirekin batera lan egitea, esperientzia lortu eta mundu horrek nola funtzionatzen duen ikasteko.

**- Publizitatea egiteko hara joan beharra al dago?**

- Madril eta Bartzelona dira aukera bakarrak. Nik Bartzelona hobeto ezagutzen dut, neure fotografia ikasketak, 1991n, han egin bait nituen (Escuela de Altos Estudios Politécnicos de Barcelona).

Bartzelonan dagoen Publizitate eta Moda Elkartean 300 bat fotografo dira eta beraiekin kontaktutan izan naiz, lan egiteko dauden aukerak aztertzen.

**- Eta zer nolako lanak dira horiek?**

- Nagusiki bodegoi publizitarioak landuko ditut. Moda ere ikutzea gustatuko litzaidake, kontutan izan modak indar haundia duela Bartzelonan, eta beharbada *free-lance* lan batzuk ere egingo ditut.

**"Autore lana egiteko zuribeltza gehiago gustatzen zait. Publizitaterako, berriz, kolorea aproposagoa dela uste dut"**

AZPEITXI Jatetxea
LAISTER ZABALIK!!
Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

### *Garaipen berri bat*

Kaixo langileok; Berriz ere greba honekin erakutsi diegu ezin daitekeela langileekin jolastu, ez diegula gure geroarekin jokatzen utziko. Euskal Herriaren desindustrializazioa nahi dutela badakigu. Halaber gazteriak ezin dezakeela ezer egin eta "pasatze" sakonean sartu nahi dute; egiten den guztiagatik ere denak berdin jarraitzen duela sinistarazi nahi digute.

Zuk eta nik badakigu gauzak ez direla horrela, atzo bezelako erantzun gogorrak zer pentsa ugari ematen diela.

Gaur tripakomin eta burukomin latza izango dute Madrileko "gobernanteek" baita Gasteiz eta Iruñekoek ere, zeinen ordezkari nagusiek, PNV, PSOE, eta UPN, greba hau apurtzen saiatzea besterik ez bait dute egin. Ikusi duzu ez dutela lortu eta hemendik sektore guztietakoak animatu nahi zaituztet eta batez ere zapalduenok: gazte, emakume, langabetu, jubilatu, behin-behineko langileak...

Zorionak denoi atzo lortu genuen garaipenagatik baina ezin gaitezke geldi lotan, eguneroko borrokak jarraitzen du eta. Laister badugu Bilbon beste egun handi bat, Bilbon otsailaren 19an!

Han berriro ikusiko dugu elkar. Euskal Herriaren geroa gure esku dago, gure menpe dago!!

Lurdes Aierbe, LABeko Delegatua.

### *Biolentziaren aurkako zinegotziak?*

1994ko urtarrilaren 24tik aurrera Bergarako zinegotzi batzuek ezin izango dute biolentziaren aurka daudenik esan, torturа eta torturatzaileen alde azaldu direlako. Gure proposamena torturaren babesarekin bukatzekoa zen eta horretarako herriko alderdi politikoekin elkartu ginen gero proposamena Udaletxe eta parlamentutan aztertzeko eta erabakiak hartzeko eskatuz, ikusirik politikoek dutela horrelako legeak aldatzeko aukera.

Bergaran erabakia hartu dute eta proposamen horren kontrakoa izan da, beraz torturatzaileak pozik egongo dira eta euren lan zikina lasaiago egingo dute legeen babesarekin eta gure herriko zinegotzi batzuren laguntzarekin.

Zinegotzi hauek garbi erakutsi dute Ajuria-eneko paktuaren aginduak betetzen dituztela eta ez zaiela batere ardura Bergarar ugari torturatuak izan direla eta hemendik aurrera ere torturatuak izango garela, noski beraiei tokatzen ez zaien bitartean ez da ezer gertatzen, Sorpresa handiena guretzat EAko zinegotziak eman du, alderdi honekin elkartu ginenean garbi azaldu ziguten eurak biolentzia guztien aurka daudela eta noski torturaren kontra, gainera pleno batean lege anti-terrorista kentzea eskatu zuten. Zergatik eman zuen orduan EAko zinegotziak mozioaren aurkako botoa? Non dago esaten eta egiten dutenaren arteko koherentzia?. PSE-EE, EA eta PNVko zinegotzi hauek erraz jartzen diote bere buruari pakezale eta demokrata izena, baina hau eguneroko lanarekin demostratu behar da eta zuen jarrerarekin pakezale eta demokrata baino torturaren babesle eta errepresioaren defendatzaile bihurtzen zarete.

Bukatzeko alderdi hauei erreflexionatzeko gauza bat esan nahi genieke. Egun argiz eta jende aurreko kontrol batean Ormaiztegiko alkatea jipoitzeko kapaz badira zer ez ote dute egingo bost egunetan pertsona bat komisarian daukatenean inongo babesik gabe?

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komitea

### *Zuzenketa*

BERRIGARAren 134. alean "Larunbat goizeko martxa Bergaran" deituriko erreportaian UNEDen 1.945 ikasle zeudela eta horietatik %50a etortzen zela jarri genuen. Datu horiek oker daude eta UNEDen 2.091 ikasle daude eta horietatik gure herrira zapatu goizetan %65a etortzen da.

### BERRIGARA *berriztua*

Aurreko aleekiko aldaketak igarriko zenituzten aste honetako BERRIGARAn. Hala da, bai, hemendik aurrera errebistako azala koloretan argitaratu eta lau orri gehiago sartuko ditugu. Horrez gain, atal berriak sortu ditugu, beste batzuk kendu eta lehendik zeuden besteak itxuraz aldatu, diseinua berritu. Kolaboratzaile berriak izango ditugu aurreantzean.

## Tiiira biraka

BITTOR RODRIGUEZ



# Merkatariak ez daude azoka plaza berrira joateko prest

Asteazkenean eginiko prentsaurrean, Alberto Arratek, merkatuan postua duten komertzianteen izenean, Udalak merkatu berrira joateko egindako proposamena onartezina dela eta ez direla bertara joango adierazi zuen. Arratek esan zuenez, *"orain 16 hilabete hasi ginen Udalarekin negoziazioetan eta atzo bertan egin ziguten azken proposamena: 4 milioi postu bakoitzeko, solera barik (lehen pisuko erdialdeko gunea hutsik geratzen da orain) eta komertziante fijoak (7 momentu honetan) 2. pisuan"*. Merkatuko 24 postuen kontzesioa datozen 25 urterako (beste 15 urteko prorrogarekin) izango lizateke.



Merkatuko dendariak eta Udala ez dira oraindik akordio batetara iritsi.

**"Berrikuntzak nahitaezkoak dira"**

Komertzianteek, merkatu berriak gainditu daitezkeen arazo batzuk dituela uste dute; *"merkatua beharrezkoa eta guztiz interesgarria uste badugu ere, lehen proiektuan agertzen zen solera desagertu egiten da orain, aparkalekua barrukoa izatetik kanpoan egotera pasa da eta bestalde, guretzat oso garrantzizkoa den baserritarren integrazioaren arazoa ere hor dago (integrazioa lortzeko solera ezinbestekoa da). Oraingo proiektuan sotanoan baserritarrak leudeke, lehen pisuan ez dakigu eta bigarrenean gu jartzea nahi dute. Merkatua ezinhobeto kokatuta dago eta hainbat berrikuntza egitea beharrezkotzat jotzen dugu bere funtzionamendua ahalik eta egokiena izan dadin"*.

Orain, Alberto Arrate abokatuak ordezkatzen dituen 7 komertzianteek gauza horrek hobetu eta prezioa 3 milioitara jeistea eskatzen dute, *"kontutan izanik krisiak elikadura arloan izan duen eragina. Dena den, diruarI beste garrantzia ematen diogu lehen aipatutako hobekuntzei"*.

Bestalde, Udal Gobernuaren jokaera salatu zuten komertzianteek; *"orain urtebete amaitu zen merkatua eta ordutik jestio txarra izan da, ez gaituzte inoiz kontutan izan eta sekulako atzerapena eman da. Atzo (asteartean), orain 3 hilabete jaso genuen proposamen bera egin ziguten eta somatzen dugu ez duela benetazko borondaterik merkatua aurrera ateratzeko"*.

**Gaur plenoa**

Bestalde, gaur eguerdiko Osoko Bilkuran onartzekoak ziren merkatuko postuak adjudikatzeko baldintza pleguak. Victoriano Gallastegiren hitzetan, *"hortik aurrera postuak eskuratzeko negoziazioak hasiko dira eta lehentasuna duten komertzianteak bertan sartu nahi ez badute, publiko egingo dira oinarriak"*

IBARGUREN PENTSUAK
*Biona* pentsuen biltegia.
*Bioter* produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ARTISAUTZAKO IZOZKIA
GOXO-TOKI
D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

### ◆ Ikastaroak UNEDen

UNEDeko Geografia eta Historia Departamentuak *"Ingurugiroarekiko inpaktu ikasketak eta informazio geografikoaren sistemak"* izenburuko ikastaroa antolatu du martxotik ekainera bitartean. Bestalde, Filolojia Departamentuak *"Linguistika aplikatutako ikastaroa: hizkuntzen irakaskuntzarako ekarpen praktikoak"* iragarri du ingelesaren irakaskuntzan ari diren profesional, lizentziatu, O.H.O.ko irakasle eta filolojiako ikasleentzat. Ikastaroa otsailaren 18tik apirilaren 16ra bitartean izango da. Argibide gehiago 761342 telefono zenbakian jaso dezakezue.

### ◆ Istripua Oxigenotako bidegurutzean

Ostiraletik larunbatera, gauerdian, istripu bat izan zen Oxigenotako bidegurutzean. Sabino N.O. 34 urteko arrasatearrak gidatzen zuen Volvo 480 txoke egin zuen Ertzantzaren furgoneta batekin. Sabino N.O.k 0,91 eman zuen lehendabiziko alkoholemia kontrolean eta 0,90 bigarrenean. Beharrezko dilijentziak egin ondoren aske utzi zuten. Dilijentziak Bergarako Epaitegiaren esku geratu dira.



Galdutako edo galtzear dauden langintzen aberastasuna berreskuratu nahi da.

# Lexiko Berezien Bilketa

***Proiektu hau asteratean aurkeztuko da UNEDen***

Datorren asteartean, hilak 8, Lexiko Berezien Bilketa izenburuko proiektua aurkeztuko da UNEDen 19.30etan. UNEDeko Euskal Kultur Departamentuak, Udalaren laguntzaz, proiektu honi zera dela eta ekin dio, *"adineko pertsonengan azken hatsetan dagoen jakinduria, arlo berezietakoa batipat jasotzeko helburuarekin"* proiektuaren arduradunen hitzetan.

Mende eta mendetan gauzatutako hitzak, esakerak, metaforak etab. jasotzeko, galdutako edo galtzear dauden langintzak aztertuko dira lehen urte t´erdian: zerraritza, arotzeria, ebanisteria (Anaje Narbaiza ikertzaile); linoa, ehungintza, jostun-lana (Jaione Isazelaia); ikaskintza, karegintza, edurzuloak eta artzantza (Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola); burdin-lana: errementaritza, perratzailetza (Iñaki Arana) eta errotaritza (Jose Anjel Mikeo). Hizkuntzaz gain, langintza bakoitzeko prozesua, teknika, etab. aztertuko dira.

Astearteko aurkezpenean Victoriano Gallastegi alkatea, Miren Azkarate euskaltzaina eta Juan Martin Elexpuru proiektuaren zuzendaria izango dira.















# Arau subsidiarioen alegazioak eztabaidan

*Guztira 60 bat alegazio jaso dira Hirigintza Zerbitzuan*

Udaleko Hirigintza Batzordea arau subsidiarioen gainean aurkeztutako alegazioak aztertzen ari da. Joan den azaroaren 30ean amaitu zen alegazioak egiteko epea eta, guztira, 60 alegazio inguru aurkeztu dira. Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeburuaren hitzetan, *"gehienak afektatuak edota afektatu sentitzen direnen partetik etorri dira, partikularrek edota talde ezberdinek (Eguzki talde ekolojista edota Kapirixo Deba Garaiko Kultur Ondarearen babeserako taldea tartean) eginak"*. Alegazio gehiago jasoko ez den arren, Gallastegiren esanetan, *"oraindik ere sujerentzia guztiak entzuteko prest gaude"*.



Arauetan herriaren etorkizuneko ordenazioa jasoko da.

**Alegazioak Plenora**

Alegazio guztiak inolako eperik gabe banan banan aztertu ondoren, Hirigintza Batzordeak Plenora eramango ditu alegazioak bertan bere erabakia azalduz eta onartzen ez diren alegazioen esplikazioa emanez. Plenoan arauen onarpen probisionala egingo da (hasierako onarpena joan den ekainaren 14an eman zitzaien EAJ eta HBren aldeko eta PSE-EE eta HBren kontrako botoekin) eta ondoren, Diputaziora bialduko da Plenoko erabakia. Diputazioa, berriz, Eusko Jaurlaritza, Ur Konfederazioa eta Diputazioaren beraren sail ezberdinen txostenak biltzeaz arduratuko da. Informazio guztia jaso eta handik 6 hilabetera informe bat egingo du Diputazioak; informe horren arabera, arauen behin betiko onarpena egin ahal izango da. Xabier Gallastegiren ustetan, *"behin betiko onarpen hori 1995eko urtarrilean egin daiteke"*.

### ◆ Jubilatuen Elkarteko Abesbatza Gasteizen

Jubilatuen Elkarteko Abesbatzak parte hartu zuen aurreko asteazkenean Gasteizeko Udalak Principal Antzokian antolatutako Euskal Herriko 3. Adinekoen Abesbatz Topaketan. Era berean, Ines Elorza legazpiarrak zuzentzen duen taldeak Santa Agedan abestu zuen asteazkenean eta gaur ostirala irtetzekoa zen Santa Ageda eskean.

### ◆ Egonaldiak familia euskaldunetan

Eusko Jaurlaritzak martxan jarri ohi duen *"Egonaldiak familia euskaldunetan"* plangintzan parte hartzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura (760857) deitu dezakete.

### ◆ Maltzaga-Urbinari buruzko hitzaldia

Deba Bailara Bizi-Bizirik Plataformak antolatuta, asteartean, hilak 8, hitzaldi bat izango da UNEDen 7etan. Besteak beste, Oinezko eta Bizikletentzako Bideen Aldeko Taldea, Plataforma Ciudadana pro-autopista Malzaga-Urbina, Kapirixo, HB, EA-EUE, Eki, Eguzki eta Mendia Bizirik gonbidatu dituzte.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

MINER ardoak
Biltegiko telefonoa: 76 41 41
Ardo onak jakina

20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen
ederTu
Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

*Legedia...*

# Prestamo hipotekarioak



**SABIN ZABALETA**

*(abokatua)*

**- Zer dira prestamo hipotekarioak?**

- Etxe bat erosteko orduan bi aukera dira; kolpera erosi edota denboraren poderioz egoera horri aurre egin ahal izatea. Hori izan da arruntena. Nahiz eta Espainiako Konstituzioak etxebizitza beharrezko ondasuntzat jo, hori ez da horrela. Erosi erosi daiteke baina gero finantziatu egin behar da. Finantziatzeko beste bi aukera dira; prestamo pertsonalen bitartez (nik nere atzean beste pertsona batzuk dauzkat, abalistak hain zuzen, bankuaren aurrean) edota prestamo hipotekarioak (garantia bezala ondasun bat hartzea eta horren truke diru bat ordaintzea X interesaren arabera).

**- Eta zein aldaketa izan dira prestamo hipotekarioetan?**

- Espainiako Gobernuak hainbat aldaketa onartu ditu. Zertan oinarritzen diren? Lehen kutxa edo banku batekin traturen bat bazeneukan, tratu hori aldatzerik bazegoen baina oso garestia zen. Orain aldaketa hori merkeago egitea planteatzen da.

**- Ze ondorio dakar horrek?**

- Oso inportantea. 6 hilabetetan 5 puntu jeitsi dira. Dirutara jota, 10 milioko prestamo bat eskatzen baduzu etxe bat erosteko, aldaketa honek, banku batetik bestera aldatzeko (lehen % 16arekin egin nuelako tratua eta orain berriz % 10ean daudelako prestamo horiek) aukera ekarri du. Eta dirutan inportantzia izateaz gain, alderdi sozialetik ere garrantzi haundia dauka. Nik, bezero naizenez, badaukat mugitzeko, oferta ezberdinak aztertzeko aukera. Aldaketa egiten dudan momentuan % 10ean edukiko dut prestamo hori.

**Etxebizitzaren munduan zein eragin izango du?**

- Ez du aldaketa izugarririk ekarriko, alokairu legeak haundiago izan dezake, esate baterako. Hala eta guztiz ere prestamo hipotekarioak merketzen diren momentuan (interes kopurua jeitsi bada epea ezin da aldatu 10 urtetik 20 urtera), lojikoa den bezala, nahiko inportantea bada gaur egun, ba hemendik aurrera izarra izango dira era honetako prestamoak. Zergatik? Dirua % 10ean badaukagu, orain 5, 10 urtetan erosi beharrean 25 urtera jartzen dugu prestamo hipotekarioa. Beste bati errenta bat edo alokairu bat ordaindu beharrean bankuetxeari ordaintzea izango litzateke, 25 urte barru erosteko baldintzarekin.

**- Popularragoak bihurtuko dira, beraz.**

- Ez da zuzen-zuzenean lege dekretu honek dakarren ondorioa baina, azken finean, alderdi praktiko hori finkatzen da, neurri sikolojikoa hain zuzen, prestamo hipotekarioak indartzeko neurri bat; etxebizitzen politika aldatzeko planteamendu bat ekarriko du nahiz eta oinarrizkoena ez izan (Ley de Arrendamientos Urbanos izango den moduan) eta ezkonberriek adibidez ez dituzte jasan beharko gaur egun dituzten hestuasun ekonomikoak, bizimodu maila igoko dela uste dut.



Makina bat buruhauste, kreditoak eskatzerako orduan.

MUJIKA
Burdinaki denda
Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA



Domingo eta Lorentzo Olañeta anaiak dolarearen aurrean.

# Sagardoa BERGARAN

**Sagardotegien bolada berri bat hasi berria da eta asko dira nobedade moduan Astigarra edo Hernani aldera sagardotegira joaten direnak. Baina sagardoak gorantz egin beharrean, gure herrian behintzat beherakada nabarmena izan du bere produkzioan. Halere, oraindik herriko baserri batzuetan sagardoa egiteko ohiturak jarraitzen du. Erreportai honetan gai hori jorratuko dugu.**

Uberako Olañeta baserrian, Lorentzo eta Domingo Olañetaren baserrian, beren aita zenaren ohiturari jarraituz sagardoa egiten jarraitzen dute. *"Gure aitak duela 80 urte dolarea Garitanori erosi zion eta ordutik hona gure etxean sagardoa urtero egiten jarraitzen dugu"* dio Domingok.

Gure herrian lehen ohitura zen sagardoa etxean egitea, baina orain, guk dakigunez, sagardoa Olañetan, Uberako Esperantza baserrian eta Santikutzeko Elizalden egiten dute. *"Aintzinan hemen sagardo asko egiten zen, sagar asko zegoen eta. Angiozarren Gaztelun, Parteittin dagoen Zabarte baserrian ere oraindik badute dolarea. Lehen hemengo edaria sagardoa zen"* dioskue Olañetarrek.

Domingo eta Lorentzok sagarra urria eta azaroa bitartean batzen dute, Pilarika zubia inguruan hain zuzen ere, eta batu ondoren hiru bat astetan sagarrak baserriko ganbaran gozatzen uzten dituzte. *"Sagarrak- Lorentzok dioenez- gure baserrikoak dira, baina aurten Uberako beste baserri batzuetatik ekarri behar izan ditugu. Lehen sagar klase hobea zegoen, esnaolea, palazioa, merkarinia, gazamina. Orain, berriz, sagar klase hori desagertu egin da eta merkarina eta esnaola egon dagoen arren, ostean sagargorri aialuze bat eta lehendik klase ezberdinak. Era berean lehengo sagarra hobea zen, ez dakit eguraldiagatik den, baina lehengo eguraldia sanoagoa zen eta sagardoa ere kalitate hobekoa zen".*

### Bi hilabete inguru barriketan

Sagarrak hiru astetan zehar Olañetarren ganbaran gozatzen egon ondoren, dolarera pasatzen dira. *"Azaroan iluntzean sagarrak txikitzen dira eta zabalduta goizaldera arte izaten dira sagarrak. Gero txikitutako sagarrak dolarean (prentsa) sartu, egun eta erdian zehar lau edo bost pa-*

ONENA
TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

INFERNUKUA
TABERNA
Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

*sada ematen diogu lehortu arte. Dolaretik irtetzen den sagar zukua fermentatzeko barriketan sartu beharra dago eta fermentatutakoan, handik hilabete t'erdira edo bira, botiletan sartzen dugu. Baina bitartean, barrika batetik bestera sagardoa pasatzen dugu zikinkeria guztiak kentzeko eta horretaz gain, azukre pixka bat botatzen diogu, horrek bizitu egiten baitu sagardoa"* dioskue Olañetarrek.



Olañetarrak 80 urte inguru daramatzate sagardoa egiten.

Aurten 4 mila litro sagardo egin dituzte eta Gipuzkoako kostaldean egiten duten sagardoarekin konparatuz Uberako bi sagardogileen produktuak badu desberdintasunik. *"Hangoek sagardoa mingazten denean sartzen dute botiletan, guk, berriz, hemen jenteak goxo antza nahi duelako edo, graduazioari garrantzia gehiago ematen diogu. Gure sagardoak 6 gradu inguru ditu, baina euria egiten badu 5 gradu edo izaten ditu"* dio Lorentzok.

Sagardoak barriketan fermentatzen bi hilabete inguru ematen ditu eta normalean kupelak amerikar haritzez edo gaztainondoz eginak daude *"lehenago geritzondoz ere egiten ziren, baina orain ez. Gure barrikek 400 eta 700 litrotako edukiera dute eta batetik bestera badago diferentziarik. Barrika zenbat eta handiagoa izan, sagardoa hobea irtetzen da"* dio Domingok.

**Urik gabeko sagardoa**

Gure herrian sagardogileak desagertzen joan diren bitartean, Gipuzkoako beste herri batzuetan gorantz egin du. Beste herri batzuetan egiten den sagardoa ikusteko aukera izan dute Olañetarrek. *"Zapirainen izan ginen eta "kimika" asko erabiltzen dute. Han ura erabiltzen dute asko, hango kupelak betetzeko sagar asko behar da. Behin gure aitaren lagun bat baserrira etorri zen eta honek sagardoa eskeini zion eta lagunak zera galdetu zion: "ze portzentaje ur botatzen diozue sagardoari?". Nire aitak, harrituta, sagardo ona egiteko uraren beharrik ez zegoela eran-tzun zion".* Dena den sagardoak, ardoak bezala baditu urte onak eta txa-

## Sagardoa zela egiten da bada?

Lehen pausua sagarrak aukeratzea da. Aukeraketan kontutan hartu behar da sagar garratzak eta gozoak ondo nahastea. Ondo aukeratu ondoren eta sagarrak nahastuta daudenean, txikitu egiten dira eta 24 orduz beratzen uzten dira. Beratu eta gero txikitutako sagarrak dolarera pasatzen dira eta makina honek sagarra prentsatu egiten du zukua atera arte. Prozesu hori 4 edo 5 aldiz egiten da sagarrak duen zuku guztia ateratzeko. Ondoren zukua egurrezko barriketara pasatzen da fermentatzeko eta hor sagar zukuak bi hilabete emango ditu fermentatu arte. Sagardogileak graduazioa neurtu ondoren eta bere gustokoa dela ohartzen denean sagardoa botilan sartzen da.

GOIERRI
Autogidarien eskola
Fraiskozuri Enparantza 5 Tfnoa: 76 41 50 BERGARA

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

# Sagardoak barriketan fermentatzen bi hilabete ematen ditu eta kupelak amerikar haritzez edo gaztainondoz eginak daude

rrak. Esate baterako iaz ez zen sagardo onik izan Lorentzok dioenez, *"Sagardoak ona irtetzeko eguzkia behar du eta iaz eguraldi eskasa egin zuen. Duela gutxi arte txakolina ere egiten genuen, baina txoriek mahatsa jaten zuten eta ez zegoen txakolina egiterik".*

**Esperantzan ere sagardoa**

Uberan dagoen Esperantza baserrian ere sagardoa egiten dute, eta horretarako duela 15 urte Astigarragan tresneria berritu ondoren zahartuta gelditutako dolarea erosi zuten. Aurten ez dute sagardorik egin, baina duela bi urte 4 mila litro sagardo egin zuten etxerako. Sagar garratza, esnaolea, sagarbeltza eta azken finean bertako sagarra erabiltzen dute sagardoa egiteko. Duela gutxira arte Antzuola bidean dagoen Iribar baserriak sagordotegi moduan funtzionatzen zuen, baina orain desagertu egin da.

Bestalde Aranerrekan dagoen Eguzkitza erretegian sagardoa edateko aukera dago. *"Erretegian 900 litrotako hiru barrika ditugu, halere pittarra kanpotik ekartzen digute, baina sagardoa bertan fermentatzen da"* dio Jose Mari Leturiak. Eguzkitzanean duela 6 urtetik ematen dute sagardoa eta urtarriletik apirilera bitartean sagardoa edatera joan daiteke, bai janaria etxetik eramanda edo bestela erretegiko txuleta, saiheski edo kogote bikainak dastatuz. 2.000 pzta.ren truke sagardotegietako menu tipikoa esakeintzen du.



Esperantza baserriko Luis Larraza (aurpegia emanez) eta Narbaiza-boluko Luis Mari Agirre sagardoa prentsatzen.



# Berrigazte

ikasleen orriak

Migel Altuna institutua — 1. Zenbakia


## INGURUGIROA

## Oraingo Ekosistema


AITOR LETE LARRAÑAGA 1.E


Gaur egun munduko ekosistema oso egoera txarrean dago. Industriatik irtetzen den kea, berebilek jaurtitzen duten kea, pilak errekan, basoan, Coca-cola latak mendian botata etab.

Horrela ezin da segi, munduak hori baino gauza on gehiago behar du, bizirik irauteko.

Orain Italian eta Mexikon, gauzak hobetu egin dira. Orain pertsona bakoitzak du bere eguna, kotxean irtetzeko, poliziak lata edo pila bat lurrera jaurtitzen edo zuhaitz bat mozten ikusten bazaitu, 20.000 pezetako multa jartzen dizu, horrela mundua hobeto zaintzen ikas dezazun.



Nahiz eta oso zaila izan, mundu guztian jarri beharko litzateke lege hori, baina hori baino gehiago egiten badugu hobeto.

**Jendeak asunto honetaz zer pentsatzen duen jakiteko, bi entrebistatxo egin ditugu:**

**Ibai Otxotorena**
*19 urte, ikaslea*

"Nik uste dut, munduak asunto honetan arrisku haundia duela, baina, jendeak jakinda ere, ez duela kasorik egiten. Oso penagarria izango litzateke, Mexikon jarri duten legea, Bergaran eta leku guztietan ez badute jartzen".

**Jose Maria Aranzabal**
*38 urte, abokatua*

"Zer esango dugu ba, betikoa, oso gaziki dagoela etab. bai baina, zertarako balioko du, ez badugu kasorik egiten. Ni oso mendizalea naiz, eta nire semeak paper edo lata bat mendian jaurtitzen badu, haserre egiten diot eta horrela ikasten du mundua hobeto zaintzen eta komenigarria izango litzateke horrela jende guztiari egitea".

## Ozono Geruza

Gure lurra arrisku haundian dago, ozono geruza dela eta, dena lantegietako ke beltzak, kontaminatutako gasak, lurrera botatzen ditugun pilek... osatzen dute.

Gu babesten gaituen geruza apurtzen dute. Geruza hau apurtuko balitz, jende asko hilko litzateke, erradiaktibitatearen ondorioz, hau dena arreglatzeko zerbait pentsatu behar dugu.

Behintzat lantegietan eta abarretan zerbait eginaz:

- Lantegietan depuradorak jarri.
- Erabilitako paperak erreziklatzera eraman.
- Zuhaitzak ez moztu eta gehiago budatu beharko genituzke.

Eta jendea ohartarazi beharko genuke, daukagun arriskuaz jabetzeko. Bestela gure mundua desagertu egingo da. Ez dugulako zaintzen.

Eta haurrei ez diegu behar den moduan erakusten, ozono geruzak zer inportantzia duen, eta hau babesten.

Gerrekin eta halako istorioekin ere mintzen dugu lurra.

Itsasoa nola dugun ere ez dugu ahaztu behar. Petroleo, pilak, zaborrak eta abarren eraginez arrainak hiltzen direlarik.


IBAI MENDIA 1.E

# ❑ BIDEO JOKUAK

## BIDEO JOKU BERRIAK

| MEGA-DRIVE | SUPER NINTENDO |
|---|---|
| STREET FIGHTER II | SF II TURBO |
| Aladdin | Starwing |
| Jurassic Park | Dragon Ball Z |
| EA Soccer | Super Mario All Stars |
| Flashback | Jurassic Park |
| Sonic Spinball | Batman Returns |
| Robocop vs Term. | Alien 3 |
| TMHT Tournament | Mortal Kombat |
| Lethal Enforces | Aladdin |
| Bubsy | Bubsy |

**KONTSOLA BERRIA. Kontsola berri hau MEGA DRIVE bat daukagunean bakarrik erabili dezakegu. Disko konpaktoetako jokuak, musikakoak eta CD Photoak sartu daitezke. Hauek dira MEGA-CDko joku batzuk: Jurassic Park, Sonic CD, Robocop VS, Terminator, Mortal Kombat, Timegal..., batzuk aipatzearren. Zatarrena bere prezioa da, ia 50.000 pzta.**

# ❑ BERTSOTAN

Norbaitek izan zuen
ideia berria
sortu nahi zen eskolan
gure aldizkaria
batzuk lanean bota
dute izerdia
hala ta guztiz hemen
daukagu saria

Nahiz ta jendeak pentsatu
alperrak garela
batzuek jarri dute
gogua makala
aldizkari hau da
muestra bezala
hemen zerbait eiteko
gogua dagola

ANDOITZ ARANBURU
2. BTI

Austiñek bidali digu
etxerako lana
bertso pare bat bota
bai alajaina!
Nik pentsatuta neuzkan
bospasei nana
baina ezin det egin
nik neuk nahi nuena.

ETOR LASKURAIN
2. BTI

# ❑ FOTO NOTIZIA






Pasa den azaroaren 26an, Bergarako Elementalean, **hauteskundeak** izan ziren **barne arautegia** (ROF) berriztatzeko, gure zuzendariaren presentziaz. Hogeitabost hautagai egon ziren eta hiru atera ziren.

JUAN CARLOS BARRIONUEVO (15 URTE)

# Bosniako gerra sufritzen dutenei nola lagunduko zenieke?



**Esteban Osa**

*49 urte, langilea*

Gauza haundirik ezin dezakegu egin, ez dago gure eskuetan politikoenetan baizik. Gure elkartasuna adierazi eta arropak bidaliz lagundu, besterik ez.



**Mila Castelo**

*35 urte, langilea*

Arrasateko anbulategian lan egiten dut eta handik medikamentuak bidali ditugu. Horrelako gauzekin lagundu diezaiekegu.



**Xabier Etxezarreta**

*34 urte, langilea*

Lagundu era askotan lagundu dizezaiekegu bosniarrei, baina kontua da laguntza hori eurei heltzen zaien ala ez.



**Mireia Alberdi**

*20 urte, ikaslea*

Europako nazioek ahalegin gehiago egin beharko lukete, eta Golkoko gerran jarri zuten interesa kasu honetan ere jarri konponbideak topatzeko.



**Alberto Fernandez**

*26 urte, langilea*

Gerra geldiarazteko ahaleginak egingo nituzke, eta bestalde, medikamentuak eta janariak bidali... Gerra amaitzeko pausuak eman behar dira.



**Alaitz Arana**

*17 urte, ikaslea*

Erropak bidaliko nituzke eta diraluntza ere bai. Prest egongo nintzateke Bosniara boluntario joateko, oso sentzibilizatuta nag gaiarekin.




POL-POL
TABERNA
☎ 76 07 7

DEPORTIVO
TABERNA
☎ 76 01 51

PETRIKILO
MASAJISTA
KARTA-AZTIA
☎ 76 47 24 (Gonzalo)

HAGIN KLINIKA
BERGARA
LEHEN AZTERKETA DOAN
Bidekurutzeta, 6 2. (Lehengo Notarian
☎ 76 05 77



## *Feminismoa eta intsumisioa*

Esaten digutenean idazle txit argiek eta hizlari jaun burutsuek, esaten dutenean nagusi zentzudunek azokako, tabernako edo frontoiko beren berriketaldietan... esaten dutenean gaurko gazteei ez diela ezerk ardura, nik pentsatu ohi dut: "...eta zertan ari dira ba, intsumisoak?. Zeren eta mutil horiek, kritikatzen dituzten horietako asko (Belloch bera barne) baino balore gehiago azaltzen ari dira errealitatearen aurrean. Ez daitezela etorri frankismoa eta gartzelaz berriketan etorri; guk DEMOKRAZIA eta gartzelaz hitzegiten baitezakegu, benetako kontzientzi presoak baititugu.

Baina, tamalez emakumeei (berdintasuna dela eta) zerbitzu soziala eginaraziko zaiela zabaldu arte, andrazko askok ez dute zalantzan jarri Estatuari derrigorrez eta "doan" zerbitzu bat eman beharra. Bitartean, gazte pila bat gartzelan usteltzen daude.

Ez dezagun eztabaida-gaia aldatu: kontua ez da emakumeek zerbitzu zibila (edota militarra) egin beharko luketen ala ez; kontua da ea zergatik egin behar duten gaur egun 18tik 30 urtera bitarteko gizonezkoek.

Azkenik, lerro hauen bitartez nire elkartasunik zintzoena adierazi nahi diet hemendik aurrera epaituko dituzten bi bergararrei, Joxe eta Gustavo "gaizkile" (konturatzen zarete?) ausartei. AUPA!

**Marta MORAL**



## *Mendiak eta kontserbazioa*

"Ingurugiroa eta mendia Euskal Herrian" liburua da Mendia Bizirik taldeak mendien kontserbaziorako egin berri digun aportazioa.

Honako honetan lehenengo aldiz, Euskadiko mendizale elkarteek berek aztertu dute hemengo mendien problematika eta eritzi batasunez adierazi dute baso eta ganadu ustiakuntzak, azpiegiturak eta aisia direla mendiok gehien hondatzen dituzten faktoreak. Gaia siglen loturarik gabe eta mendia ondoen ezagutzen dutenen ikuspegi ekologikotik planteatzen da liburuan.

Mendietako harremana, bai pertsona mailakoa eta bai talde mailakoa, ikuspuntu berri batez planteatzen da; demagogiak alde batera utzi eta lehengaien ustiakuntza beharrak eta herritarrentzako aisialditokiak izatearen premia inguruartekiko eta bertako protagonistekiko errespetuarekin lotzen ditu.

Bakoitzak berak erabakitzen du berak zer egin eta taldean nola jokatu behar den administrazioak markatu beharko du. Horretarako, gaur den baino kontserbaziozaleago bihurtu beharko du, askotan ekologiatik ihesi baitabil, ekologiak garapena frenatzen duela uste izanik, nahiz eta Euskadiko mendizale guztiak zoriondu beharra dago eta bereziki Mendia Bizirik elkartea, egin duen koordinazio-lanagatik.

**Juan Antonio MIGURA**

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

LAKET
Gizon Emakume
Barrenkale 35 BERGARA

Foto Sistema Albéniz
ARGAZKIAK ORDUBETEAN
✓ Diapositiba errebelatzeak.
✓ Karneterako argazkiak momentuan.
✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.
Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50

GURIA Taberna
Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



## Irutxulo aldizkariko lagunak

**BAGERA** Donostiako euskararen aldeko elkarteko kideak izan genituen astelehenean BERRIGARAn bisitari. Elkarte honek ***Irutxulo*** aldizkaria argitaratzeari ekingo dio Aste Santu ostean, azken urteotan sortu diren euskarazko aldizkarien ereduari jarraituz. Argazkian, ezkerretik eskumara, Irutxuloko langile izango direnak: Joseba Barriola (publizista), **Edurne Arenaza** bergararra (orainarte JARDUNeko dinamizatzailea eta hemendik aurrera *Irutxulo* errebista maketatzeaz arduraduko dena), Amaia Arrondo (publizista), Laurane Zubia (administraria), Edurne Otamendi eta Jone Dorronsoro (kazetariak).
*Bagera*k apirilean aterako du Irutxulo astekariaren lehen zenbakia, 36 orrialde izango ditu eta 5.000 ale banatuko dira donostiarren buzoietan.

## Ipuin kontaketa

**Astelehenetik asteazkenera bitartean OHO-ko lehen eta 2. mailako ikasleei zuzendutako ipuin kontaketa saioak izan dira Udal Liburutegian.** Pello Añorga **oiartzuarraren eskutik, neska-mutikoek primeran pasa dute Ipar Amerikako indioen kontuak entzunez eta Pellorekin batera kantuan eginez. Pello Añorgaren kontaketak Angiozar, Osintxu eta Aspaceko ikastetxeetara ere heldu dira.**



Pello Añorga
ipuin kontalaria.

DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA
Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80 - 76 06 37

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...
Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Usoa Pub
Tfnoa: 76 38 57
Irala 1

## Urrezko eztaiak

**Benita Mujika** eta **Jesus Elkoroberezibar** bergararrek beren ezkontzaren urrezko eztaiak ospatu berri dituzte. 1944ko urtarrilaren 26an ezkondu ziren Santa Marinan eta fetxa horren 50. urteurrena ospatzeko, larunbatean, familiartekoekin batera (beren seme-alabak tartean), bazkaria izan zuten Zumelaga Jatetxean. Zorionak Jesus eta Benitari eta ondo segi!!



## Tenerifera eguzkitara

**Imanol Ibarra** izan da **Ibargarai Aldeko Merkatarien Elkarteak** antolatutako zozketako irabazlea. Ibargaraiko Merkatarien Elkarteak bi lagunentzako Teneriferako bidaia zozketatu zuen joan den urtarrilaren 10ean eta Imanolen boletoa (14.480 zenbakia) suertatu zen irabazlea. Argazkian, Imanol Ibarra, bere eskuman **Garbiñe Elorza** (Halcon bidaiak) eta ezkerrean **Edurne Sarasketa** (Alga lurrindegikoa, elkartearen izenean) dituela. Zorionak eta ondo pasa!!



## Zertan dihardute ba?



**Iñigo Igartua** bergarar txirrindularia 42. postuan sailkatu zen igandean Beljikako Koksijde hirian jokatutako Munduko Ziklo-kross Txapelketan. Estatuko txirindularien artean Igartua lehena izan zen (doblatuta izan ez zen bakarra). Igartua 7 minutu eta 10 segundutara heldu zen txapeldun izan zen Herijgers beljiarrarekiko. Aurtengo denboraldian, Igartuak Euskadiko Ziklo-Kross txapela jantzi zuen Diman eta Espainiako Txapelketan, berriz, Santanderren, 2. izan zen Mujikaren atzetik (osasun arazoak izan zituen). Dena den, guztiok Igartuak Mundialean zertxobait gehiago lortzea espero genuen. Hurrengo denboraldian izan beharko!!

GANBARA
Taberna
Berezitasunak:
Pintxoak eta kafea kremarekin
Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

Maxim's
☎ 76 20 61

OILAGORRA
Taberna
Barrenkale 21, BERGARA

# Iñaki Labaka

## Udaltzaina eta matarifea

**37 urte, Osintxuko Olalde baserrikoa, 13 urte udaltzain, ezkonduta, bi seme. Bergaran bizi da.**

**- Bergararra ala Osintxuarra?**
Biak.
**- Matarife al udaltzain?**
Matarife.
**- Zenbat multa urtean?**
100 bat.
**- Nori jarriko zenioke multarik haundiena?**
Udaltzainoi kasorik egiten ez digutenei.
**- Zein animalia ez zenuke inoiz akabatuko?**
Txakurrak
**- Merkatua irekiko da inoiz?**
Neretzat bai.
**- Okela ala arraina?**
Okela.
**- Fruta bat.**
Sagarra.
**- Nork gertatzen du bazkaria etxean?**
Andreak.



*"Euskal telebista da gehien ikusten dudan katea, futbol partiduak ikusten ditut batez ere; eguerdian botatzen dituzten komedia horiek ez ditut gustoko"*

**- Eta oheak egin?**
Andreak baita.
**- Eguna ala gaua?**
Eguna.
**- Loterian 100 miloi tokatu ezkero zer egingo zenuke?**
Komeni zaidana gorde eta bestea pobreei laguntzeko.
**- Kapritxorik ez?**
Beharbada baserria hobeto jarri.
**- Optimista ala pesimista?**
Optimista.
**- Ekonomiaren egoera?**
Nahiko larri.
**- Intsumisioaren?**
Alde nago.
**- Udan mendia ala hondartza?**
Biak.
**- Reala ala Athetic?**
Reala.
**- Hobby bat?**
Mendian ibili.
**- Zein telebista kate ikusten duzu gehien?**
Euskal Telebista.
**- Programarik gustokoena?**
Futbol partiduak.
**- Eta gutxien atsegin zaizuna?**
El Príncipe de Bel-Air eta horrelako komediak.
**- Ohera pijamarekin ala narrutsik?**
Kantzontzilotan.
**- Lanetik kanpo txapelik bai?**
Ez.

**TXISTU MOTOR**

KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA

Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA

aek **EUSKALTEGIA**
EUSKARA IKASTAROAK

• 2, 3, 5 ordu • Maila guztiak • EGA • Alfabetatzea •
• MATRIKULA EPEA: Otsailaren 11ra arte zabalik.
• INFORMAZIOA ETA MATRIKULA:
• Goizez: Bergara AEKko Euskaltegian, 10.30etatik 12.30etara.
• Arratsaldez: Bergara AEKko Euskaltegian 5etatik 8etara.
• Masterreka 13, behea eskuma.
• Tfnoa: 76 05 18

**IZAN EUSKALDUN!! MATRIKULA ZAITEZ!!**

# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Patxi Godoy

**PATXI GODOI**k irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian Laureaga jauregia eta zubietako zubia agertzen ziren. Zubi horrek bi kale lotzen ditu, Zubieta eta Urdangarin kaleak hain zuzen ere. Erantzun asko jaso ditugu eta **Patxi**ri tokatu zaio oraingoan. Berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. ZORIONAK **Patxi,** eta besteok segi jokatzen saria lortu arte. Suerte!!

*Goiko eta beheko trenbideek non egiten zuten bat Bergaran?*

______________________________________________

**Izena:** ____________ **Abizena:** ____________ **Tfnoa:** ________

***Saria:***
***10.000 Pzta.***

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

***BERRIGARA***
***Errotalde Jauregia Bergara***

# ELKAR

**Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16**



- **FOTOKOPIAK KOLORETAN**
- **PLASTIFIKAZIOAK**
- **PLANOEN KOPIAK**
- **JENDEARENTZAKO FAXA**
- **ENKUADERNAZIOAK**
  - **Termo-enkolatuak**
  - **Burdinazko espiralak**
  - **Plastikozko espiralak**
  - **Fazikuloak**








**ESKAINTZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta**

## *KIROL EMAITZAK*

**FUTBOLA**

- Prefente maila:
Eskoriatza 3-Bergara 3
- Lehen erregionala:
Bergara 4-Gure txokoa 0
- Lehen mailako jubenila:
Don Bosco 7-Bergara 1
- 2. mailako jubenila:
Arrrasate 6-Bergara 3
- Lehen mailako kadetea:
Bergara 2-Mutriku 1
- 2. mailako kadetea:
Zestoa 7-Bergara 0
- Lehen mialko infantila:
Beasain 0-Bergara 1

**ESKUBALOIA**

- Senior mutilak:
Urola 24-Bergara 28
- Jubenil mutilak:
Bergara 19-Arrasate 17
- Jubenil neskak:
Leizaran 4-Bergara 13
- Kadete neskak:
Bergara 15-Mollarri 9

**SASKIBALOIA**

- Jubenil mutilak:
Aldapeta 86-Bergara 60
- Infantil mutilak:
Aranz. Ikast. 66-Arrasate 8

**PELOTA**

(Euskal Liga)

- Jubenilak binaka:
Oberena 22-Bergara 8
Gernika 19- Bergara 22
- Jubenilak banaka:
Muruamendiaraz 18
Furtes 15
Muruamendiuaraz 18
Garcia 7



Mendi bizikleta lasterketetan ari diren txirrindulari onenak ikusteko aukera izan zen joan zen igandean Uberan.

# Mendi bizkleta lasterketa ikusgarria Uberan

**250 txirrindulari inguruk hartu zuten parte joan zen igandean Uberan jokatutako Euskadiko Mendi Bizikleta Openeko lehendabiziko proban. Eguraldi bikainak lagunduta, jende ugari inguratu zen lasterketa ikustera.**

### Sailkapenak

**BETERANOAK**
1. Jose Etxeberria
2. Pedro Canarias
3. Yokin Azpiazu
4. Ismael Lejarreta

**EMAKUMEAK**
1. Margari Aiarza

**JUBENILAK**
1. Jonattan Larrañaga

**Lehen bergararra:**
Ander Markiegi

**JUBENIL K**
1. Roberto Muñoz

**Lehen bergarrarra:**
Iker Markiegi

**SENIORRAK:**
1. Fernando Martínez de Gereñu.
2. Jose Ramon Izagirre
3. Joseba Obando
4. Joseba Arietaleanizbeaskoa

**Amets**

Ford

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

**Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50**
**AMETS TAILERRAK**
Berezano auzoa OÑATI

**AGIRREBEÑA**

*Oinetakoak*
*Erropa dendak*
*Lenzeria*

**Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29**

# LABEGARAIETAKO *futbito* txapelketa

## 1. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Errotagain | **20** | 10 | 10 | 0 | 0 | 54 | 16 |
| 2. Madura | **20** | 10 | 10 | 0 | 0 | 39 | 11 |
| 3. Angiozar | **14** | 10 | 6 | 2 | 2 | 49 | 24 |
| 4. Bildurbarek LAM | **14** | 10 | 7 | 0 | 3 | 42 | 42 |
| 5. Toki Eder | **13** | 10 | 6 | 1 | 3 | 54 | 23 |
| 6. Mongatxurra | **11** | 10 | 5 | 1 | 4 | 42 | 27 |
| 7. Bar Canalejas | **11** | 10 | 4 | 3 | 3 | 29 | 24 |
| 8. Ezinleike | **11** | 10 | 4 | 3 | 3 | 34 | 37 |
| 9. Os Jardineiros | **10** | 10 | 4 | 2 | 4 | 42 | 46 |
| 10. Arloteak | **9** | 10 | 3 | 3 | 4 | 26 | 39 |
| 11. Soropotroak | **8** | 10 | 4 | 0 | 6 | 35 | 35 |
| 12. Usoa | **8** | 10 | 3 | 2 | 5 | 27 | 32 |
| 13. Nahikari Hooll. | **8** | 10 | 3 | 2 | 5 | 24 | 31 |
| 14. Kriston Potruak | **7** | 10 | 3 | 2 | 5 | 44 | 44 |
| 15. Shaktale | **7** | 10 | 3 | 1 | 6 | 24 | 42 |
| 16. OH Zerezos | **6** | 10 | 3 | 1 | 6 | 32 | 41 |
| 17. Guadalest | **6** | 10 | 2 | 2 | 6 | 19 | 41 |
| 18. Ogizun Okind. | **5** | 9 | 1 | 3 | 5 | 17 | 30 |
| 19. Kriterium | **5** | 10 | 2 | 1 | 7 | 27 | 43 |
| 20. Akort Ariznoa | **3** | 9 | 1 | 1 | 7 | 19 | 51 |

### emaitzak

Joan zen astebukaeran ez zen lehen mailako partidurik jokatu.

### hurrengo partiduak

• LARUNBATA •

**10.00:** Usoa-Nahikari Holligans

• IGANDEA •

**09.00:** Ogizun Okindegia-Angiozar
**10.00:** Shaktale-Errotagain
**11.00:** Kriterium-Akort Ariznoa
**12.00:** Os Jardineiros-Bildurbarek LAM
**13.00:** Bar Canalejas-Toki Eder
**16.30:** Soropotroak-Arloteak
**17.30:** Guadalest-Kriston Potruak
**18.30:** Ezinleike-Mongatxurra

### Golegileak

1. Fernando Agirre (Toki Eder) ....... 14 gol
2. Iñigo Pagaldai (Angiozar) .......... 14 gol
3. Aitor Anton (Errotagain) ............ 11 gol
4. Fernando Salinero (Ogizun) ....... 11 gol

## 2. maila

| TALDEA | Punt. | J | I | B | G | Golak alde | Golak aurka |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Arkupe | **29** | 16 | 14 | 1 | 1 | 89 | 38 |
| 2. Hartu Zamat | **27** | 16 | 13 | 1 | 2 | 82 | 42 |
| 3. Etxagi | **26** | 16 | 12 | 2 | 2 | 84 | 42 |
| 4. Revienta | **26** | 16 | 13 | 0 | 3 | 69 | 43 |
| 5. Ufala | **25** | 16 | 12 | 1 | 3 | 89 | 40 |
| 6. Ozaeta | **24** | 16 | 11 | 2 | 3 | 100 | 40 |
| 7. Kalimotxo | **24** | 15 | 12 | 0 | 3 | 77 | 40 |
| 8. Uve Bikoitza | **22** | 16 | 10 | 2 | 4 | 80 | 56 |
| 9. Eri | **20** | 16 | 9 | 2 | 5 | 71 | 52 |
| 10. Amozkibar | **19** | 16 | 9 | 1 | 6 | 67 | 43 |
| 11. Ari Ari | **18** | 16 | 9 | 0 | 7 | 67 | 68 |
| 12. Igandekoak | **16** | 16 | 8 | 0 | 8 | 60 | 61 |
| 13. Krai | **14** | 16 | 7 | 0 | 9 | 68 | 66 |
| 14. Egoki | **14** | 16 | 6 | 2 | 8 | 64 | 65 |
| 15. Matalascañas | **14** | 15 | 6 | 2 | 7 | 42 | 44 |
| 16. Txipiron | **14** | 16 | 5 | 4 | 7 | 50 | 59 |
| 17. Paok San Juan | **13** | 15 | 6 | 2 | 7 | 49 | 49 |
| 18. Kirolzaleak | **13** | 15 | 6 | 1 | 8 | 58 | 74 |
| 19. Aldoka Maldoka | **12** | 16 | 5 | 2 | 9 | 40 | 65 |
| 20. Labegaraieta | **11** | 16 | 4 | 3 | 9 | 31 | 84 |
| 21. E.H. Biterrak | **9** | 16 | 3 | 3 | 10 | 42 | 65 |
| 22. Pata Negra | **9** | 16 | 4 | 1 | 11 | 38 | 81 |
| 23. Los Txupeta | **8** | 16 | 3 | 2 | 11 | 34 | 62 |
| 24. Euxebio II | **2** | 15 | 1 | 0 | 14 | 32 | 96 |
| 25. K.K. Usaina | **0** | 15 | 0 | 0 | 15 | 24 | 112 |

### emaitzak

| | | | |
|---|---|---|---|
| Labegaraieta | 2 | 11 | Aldoka Maldoka |
| Eri | 6 | 3 | La Txupeta |
| Ozaeta | 9 | 1 | Patanegra |
| Hartu Zamak | 4 | 0 | Txipiron |
| Eusebio II | 0 | 6 | KIrolzaleak |
| Uve bikoitza | 11 | 4 | Egoki |
| Krai | 10 | 6 | Ari Ari |
| Igandekoak | 1 | 3 | Erdibiterrak |
| Etxagi | 2 | 5 | Amozkibar |
| Arkupe | 1 | 8 | Kalimotxo |
| Paok San Juan | 3 | 9 | Revienta |
| KK Usaina | 0 | 5 | Matalascañas |

### hurrengo partiduak

Astebukaera honetan 2. mailan ari direnek ez dituzte partidurik jokatuko.

### Golegileak

1. Ivan Agirrebeña (Ozaeta) ........... 42 gol
2. Andoitz Garitano (Arkupe) ......... 35 gol
3. Juantxo Izuskiza (Etxagi) ........... 35 gol
4. Igor Agirrezabal (Kalimotxo) ...... 31 gol
5. Joseba Larrañaga (Eri) .............. 31 gol



Joseba LARRAÑAGA

### Txinpartak

▼ Negua pasa bitartean, partiduak Labegaraieta kiroldegi barruan bakarrik jokatzea erabaki du Antolaketa Batzordeak. Horrela, bada, maila bakoitzeko ekipoek hamabostean behin jokatuko dituzte partiduak.

▼ Asteazkenean egindako bileran, hainbat erabaki hartu zituzten taldeetako ordezkariek eta Antolaketa Batzordeak. Alde batetik, lehen mailako bost lehenengoek eta bestetik, hurrengo sei onenek euren artean jokatu ondoren irabazle irtetzen diren hiru taldeek, hau da zortzi taldek, txapelketa eskuratzeko kanporaketak jokatuko dituzte liga amaieran.

Horrez gain, lehen mailako lau azkenak zuzenean bigarren mailara jaitsiko dira eta 13.etik 16.era sailkatzen direnak promozioa jokatuko dute bigarren mailan 5.etik 8.era sailkatzen direnen artean. Bigarren mailako lau lehenengoek, ostera, lehen mailara zuzenean igotzeko txartela eskuratuko dute.

▼ Partiduetara ez aurkezteagatik Arrano taldea lehiaketatik kanpo uztea erabaki du aste honetan Antolaketa Batzordeak.

## KIROL KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

- Bergara-Aloña Mendi (Prefente maila) Igandea, 16.15, Agorrosin.
- Bergara San Ignacio (Lehen mailako jubenilak) Larunbata, 16.30, Ipintza.
- Bergara-Arrasate (2. mailako kadeteak) Igandea, 11.30, Ipintza.
- Bergara-Urki (Lehen mailako infantilak) Igandea, 10.00, Ipintza.

**ESKUBALOIA**

- Bergara-Lasalle Legazpia (Jubenil neskak) Larunbata, 16.15, Labegaraieta.
- Bergara-Urnietako (Senior mutilak) Larunbata, 17.45, Labegaraieta.
- Bergara-Ordizia (Jubenil mutilak) Larunbata, 19.00, Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

- Bergara-Aloña Mendi (kadete neskak) Larunbata, 11.00, Labegaraieta.

**PELOTA**

(Profesionalak)

- Ansotegi eta Oregi / Telletxea eta Lasa III
- Lejardi eta Tolosa / Koka eta Errasti
- Kalonje / Badiola II Larunbata, 16.30, Udal Pelotalekua

### *Xabier Arregi eta Alatz Larrañaga*

# Igandeko derbian aurrez-aurre

**Xabi Arregi eta Alatz Larrañaga bergararrak aurrez aurre izango dira igandean Agorrosinen Aloña Mendi liderra eta Bergararen (5.a sailkapenean, 6 puntutara) arteko partiduan. Biak Aloña Mendi eta Bergara K.E.n aritu izan dira. Orain Arregik txantxikuen koloreak defenditzen ditu eta Alatz, berriz, Bergarara itzulia da.**



Alatz Larrañaga.

**- Zein da arerioaren punturik gogorrena eta ahulena.**

- **Alatz:** Gogorrena aurrekaldea; defentsa makala daukate.

- **Xabi:** Aurrekalde ona daukate; punturik txarrena esatea zaila da. Dena den, Agorrosin ondo etortzen zaigu geure jokua egiteko, zelai haundia da ta.

**- Zein da zure lehengo taldean izan duzun oroitzapenik onena eta txarrena.**

- **A:** Txarrena 3. mailara igotzerik ez lortzea aukera izan genuenean. Onena nobixia, Oñatikoa baita bera.

- **X:** Kategoriaz jeitsi ginenean gero igoera lortzea izan zen onena. Txarrena, lesioak duda barik.

**- Zein izango da partiduko klabea?**

- **A:** Zelaia ondo egotea eta geuk dakigun jokoa egitea. Hori lortzen badugu garaipena gure esku dago.

- **X:** Lehen gola sartzen duenak partidu erdia irabazita dauka, derbyetan gol gutxi izaten da ta.



Xabier Arregi

**- Nola baloratzen duzu aurten egiten ari zareten denboraldia? Eta pertsonalki?**

- **A:** Ondo, gainera planteamendu garbia daukagu. Bestalde, nere anaiarekin batera jokatzea beste aliziente bat izan da.

- **X:** Aurreko denboraldiko antzera gabiltza. Taldea ez da ia aldatu (Ramon eta Alatzaen bajak kenduta) eta aurten gaizkiago jokatzen ari garen arren, emaitza hobeagoak lortzen ditugu. Ni neu ere berdintsu nabil.

**- Ze asmo liga amaierarako?**

- **A:** Azken partidura arte 3. mailara igotzeko itxaropena izatea.

- **X:** Sailkapenean ahalik eta aurrenen bukatzea. Hala ere, partidu zailenak geratzen zaizkigu baina 3.era igotzeko itxaropena badugu.

**- Pronostiko bat igandarako.**

- **A:** 3 eta 1. Ibonek gol bat sartuko du ziur.

- **X:** 1 eta 3 edo 1 eta 2. Gehien jota, bana berdinketa.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75



KOSMETOLOGIAN AUKERA ZEURE-ZEUREA EGIN EZAZU
Larruazal osasuntsua baduzu gogoratu, zaindu eta hotzaren, tenperatura aldaketen, eguzkiaren eta abarren erasoei aurre egiteko une aproposa dela. Orain "PREVENTION"ekin larruazala bizi eta disdiratsu mantentzeko linea ezinhobea duzu. Eskaiguzu dohaineko mostra eta zeuk frogatu.
LILURA EDERTZE INSTITUTUAN itxaroten zaitugu.
Bidekurutzeta, 7 lehen pisua. 76 31 71 telefonoa.



## *Reala eta Bergara Agorrosinen*

Oraingo honetan, Realak eta Bergarak elkarren aurka Agorrosinen jokatu zuteneko argazkia dakarkizuegu Erretratu zaharrera.1973. urteko maiatzaren 31n jokatu zen partidua Mateo Salaberria Bergarako jokalariari eskainitako omenaldirako antolatutako ekitaldi garrantzitsuena izan zelarik. Mateok 14 urte eman zituen Club Deporivo Bergaran eta ondo merezitako omenaldia eskaini zion elkarteak.

Garai hartako Realeko jokalaririk onenak etorri ziren Agorrosinerta, batzuk aipatzearren, Esnaola, Gorriti, Kortabarria, Ormaetxea, Boronat, Urresti edota Gaztelu.

Argazkia partidua hasi aurretik ateratakoa da eta bertan Mateo eta Gaztelurekin batera haur taldetxo bat. Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Jon Ander Egaña, Aitor Salaberria, Mikel Lazkano, Gotzon Zabala, Eukeni Zabala eta Joxe Lazkano.

**Makurtuta:** Kepa Egaña eta Moises Altuna.

BEHEKO TABERNA
*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
*Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara*
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

## ETXEBIZITZA

**Garajea** hartuko nuke **alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Etxea** salgai Martokon. ☎ 76 00 93.

**Garajea** salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Berriztutako **pisua** salgai. 55 m2. Ganbararekin (35 m2). ☎ 76 02 13 (goizez).

**Pisu amueblatua** salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea** salgai Katabian. ☎ 76 53 30.

**Garajea** salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

**Pisua** salgai Zabalotegi Torrean (17. pisua). ☎ 76 33 19 (gauez).

**Pisua alokatzen** da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea eta egoera onean. ☎ 76 16 89.

**Etxe** bat alokatzen da San Antonion. ☎ 76 21 39.

**Garajea** salgai Sta. Marinan. ☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Bi neskarekin pisua** konpartituko nuke Matxiategin. ☎ 76 46 15.

## DENETARIK

**Aulki hondatuei** soka berria jarri eta gogortu egiten ditugu . ☎ 79 15 96.

**Talbot Samba** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

**Viallaroo PK50** motoa salgai. Berria. ☎ 763386.

**Baserri** bat hartuko nuke ☎ 76 62 64 (Imanol).

**Peugeot 205** kotxea salgai (SS-X). ☎ 760905.

**Petrikilo**, masajista eta karta-aztia. ☎ 76 47 24 (Gonzalo).

**Golf 4X4** kotxea salgai. 2 urte. ☎ 76 47 57 (gauez).

**Onix** motorra (50 cc.) ia berria salgai. ☎ 76 43 37 (Aner).

**Sega Megadrive** kontsola salgai. 2 jokurekin. 19.000 pta. ☎ 76 25 12 (Astebukaeretan deitu).

Egunero goizez **Gasteiz**era joateko **kotxea** behar dut. ☎ 76 03 20.

**Scheneider** Euro XT ordenagailua salgai. Disko gogorra (20 mb). ☎ 88 96 40 (Tere).

**Renault 21** TXE bat **salgai.** 1988koa. ☎ 763868.

**Butanozko** Mepamsa **estufa** salgai. ☎ 76 01 13.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Lau pertsonarentzako **bi litera** salgai. Koltxoiarekin. ☎ 76 37 29 (Martin).

8 hilabeteko **ume** batendako **kotxea** erosiko nuke. ☎ 765231 (gauez).

**Peltz eskalada** ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

## LANA

**Gutxitu sikiko, elbarri** edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

Lanak **ordenadorez** pasatzen ditut. ☎ 797759 (Fernando).

**Pertsona zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 764094 (Jaime).

**Haurrak** eta gaisoak zaindu edota etxeak garbituko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingelesezko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 50 38 (Ines).

**Ingeles** klaseak ematen ditut. ☎ 762290 (Ainhoa).

Haurrak/zaharrak **zaindu** eta **etxeko lanak** egiten ditut. ☎ 764094 (Isabel).

**Matematika** eta **fisika** klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 93 (Asier).

Latin, Euskara eta Frantses **klaseak**. ☎ 76 02 99.

***Sebastian Aranzabal Gabilondo***
urtarrilak 26, 86 urte
***Ramona Lopeztercero Garciastilleros***
urtarrilak 27, 93 urte
***Jose Maria Telleriarte Basterretxea***
urtarrilak 29, 81 urte
***Genobeba Unzueta Arriola***
urtarrilak 1, 95 urte

***Mikel Gallastegi Etxaniz***
urtarrilak 23
***Gorka Briongos Ortega***
urtarrilak 24
***Judit Lizarralde Iturbe***
urtarrilak 29

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

a,eme... interiores

Garibai, 9 ARRASATE
Tfnoa: 79 15 03
FAX: 79 14 89

etxeko ekipamendu os

# a,eme... interior

